

Ikastaroaren helburu eta edukien aurkibidea

Indice de los objetivos y contenidos del curso.

A2 oinarrizko erabiltzailea

Gai da egoera ezagunetan kideekin (lagun, senide, lankide, etab.) aurrez aurreko elkarreraginean gauzen eta pertsonen deskribapenak eta azalpen errazak egiteko eta ulertzeko, baldin eta bere esperientzia-esparruarekin loturiko gai buruzko informazio-truke erraza eta zuzena eskatzen badute: bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, eta erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzkoa.

A2 Oinarrizko erabiltzailearen maila lortzeko, 200 irakastorduko prozesua aurreikusten da, baldin eta A1 mailatik abiatuta baldin bada. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 100 ordu jardun beharra aurreikusten da.

Helburuak

Entzumena

Eguneroko egoera ezagunetan, maila bereko solaskideen arteko elkarrizketak eta jarraibideak ulertzeko gai izango da, baita gai ezagunei buruzko azalpenak ulertzeko ere (familia, erosketak, bizitokia, lanbidea, eguraldia...), baldin eta informazioa zuzena, argia eta poliki ahoskatua bada.

Mintzamena

Egoera ezagunetan, kideekin (lagun, senide eta abarrekin) elkarreraginean, gai izango da informazio-truke erraz eta arruntetan moldatzeko, gauzen eta pertsonen deskribapenak egiteko, eta ekintza eta egitarau buruzko azalpen errazak eta iritziak emateko.

Irakurmena

Eguneroko bizitzarekin lotutako testu labur eta errazetan gai izango da, egoera, testuinguru, formatu eta ezagutza orokorrean oinarrituz, komunikazio-asmoa, gaia, ideia nagusiak eta xehetasun adierazgarriak atzemateko. Gai izango da edukiari buruzko hipotesiak eratzeko eta aurreikus daitezkeen zehaztasunak baieztatzeko; horretarako, zenbaitetan, irudiak lagungarri izango zaizkio.

Idazmena

Lagunei, senideei, ikaskideei edo lankideei ohar eta mezu laburrak nahiz postalak, izandako esperientzien kontakizun laburrak eta pertsonen deskribapenak idazteko gai izango da, betiere, emandako erduei jarraiki.

	UNITATEA Unidad	Helburua Objetivos	Gramatika eta diskurtsoa Gramática y discurso
1	Bizi osasuntsu	Lagunari mezua idaztea. Aholkua eskatzeko. Gaixotasun ohikoenen berri izatea.	Hiztegia: gaixotasunak eta gorputz atalak Minez nago, mina daukat... Zertarako: T(Z)EKO ZERTAN ARI Aholkuak, oharrak
2	Sukaldean	Lagunari jateko zein ohitura eta gustu dugun azaltzea eta errezeta erraza bat gomendatzea.	Hiztegia: janariak, kantitateak... Zertarako NON deklinabidea Zertan ari Aholkuak eta errezetak. Denborazko loturak: hasteko, lehenengo, ondoren, eta gero, bitartean, bukatzeko...
3	Lagunduko diguzu?	Lagunari aholkua ahoz ematea. Trikimailuak lantzea. Agintera.	Aholkuak ZERTARAKO Baldintza: (e)Z GERO Agintera: zaitetz, zaitetze. Ezazu, itzazu, ezazue, itzazue.
4	Eskolan	Eskolako esperientzia ahoz kontatzea lagun bati eta oharra idaztea euskal etxeko webgunean.	Hiztegia: eskolako gauzak Pasadizoak (kontaketa) Oharrak Aurreko gaietako edukiaren errepasoak.
5	Gazteak eta ohiturak	Lagun bati herriko gazteen ohituren berri ematea. Ohiturak kontatzea. Aurreko saioetako edukiak errepasatzea, NOR-NORI-NORK eta orduak.	Kontaketa NOR-NORI-NORK aditza orainaldian. Nahiak adierazteko: ... nahi dut. T(Z)EA+ADJEKTIBOIA+DA Orduak OHITURAZKOA orainaldian eta lehenaldiak: joaten gara/joaten ginen...
6	Etxean krisirik ez	Ezagun bati aholkuak ematea. Galdegaia lantzea, konpletiboak lantzea eta etxeko lanez hitz egitea.	Hiztegia: etxeko lanak eta zereginak Aholkuak ELA konpletiboa Galdegaia NOR-NORI-NORK orainaldian
7	Zu ere kazetari	Berria idaztea. Berriak irakurri, ulertu eta idaztea. Aditz denbora lantzea.	Berriak, berri laburrak Deklinabide errepasoak Aditz aspektua NOR-NORI-NORK ELA, ELAKO, BALDINTZA... Nominalizazioak: T(Z)EA, T(Z)ERA, T(Z)EKO, T(Z)EN

8	Hura bidaia hura!	Lagun baten mezuari erantzunez, bidaia baten kronika egitea ahoz edota idatziz. Deskribapenak egitea, lehenaldia lantzea eta denbora sekuentziak antolatzen trebatzea.	Deskribapenak, bidaien kronika laburrak. Deklinabidea: NONDIK eta NORA Denborazkoak: baino lehen, aurretik, eta gero, ondoren, ...takoan, ...(e)nean. ELA konpletiboa
9	Bizitzako ipuinak	Ipuina edo alegia kontatzea, idatziz eta ahoz. Agintera eta TZEKO lantzea.	Ipuinak, alegiak. ZERTARAKO Lehenaldia Agintera jokatu eta jokatu gabea. Konpletiboak: ELA eta TZEKO
10	Memento majikoa	Pasadizo bat kontatzea. Lehenaldia eta baldintza.	Pasadizoak, kontaketa. Berriak. Lehenaldia. Baldintza: (e)Z GERO eta T(Z)EN BA... Data: urteak... Loturak: egun batean, garai batean... bukatzeko.
11	Kontu kontari	Lagunari aholku ematea, lan baten alde onak eta txarrak argitzeko.	Errepasoa Galdegaia ELA konpletiboa TZEN JAKIN, TZEKO GOGOIA
12	Arbasoen bidaia	Arbasoek zer nolako bidaia egin zuten kontatzea lagun bati.	ELA konpletiboa NORENTZAT Denborazkoak errepasatzea
13	Maitasuna, non?	Lagunari aholkuak ematea erabaki egokia hartzeko.	ELA konpletiboa EA... (e)N zehar galdera Gustuko izan, txoratuta egon... Nire ustez, iruditzen zait... ela, nik uste dut... ela.
14	Autoan, nola?	Lagunari esperientzia bat kontatzea idatziz. Lagunari azterketarako aholkuak ematea ahoz.	Konpletiboak eta zehar galderak, TZEKO EZIN IZAN Pasadizoak, kontaketa Norentzat, denborazkoak
15	Hau eguraldia!	Lagunari bere herrian zer nolako eguraldia egiten duen kontatzea, eta aholkuak ematea.	Eguraldiaren inguruko hiztegia eta esamoldeak ikastea. ZERTAN HASI, ZERTAN JAKIN. Badirudi... ELA, dirudienez (r)IK ENA superlatiboa
	Errepasoa eta ebaluazioa	A2.1 mailako errepasoa eta ebaluazioa egitea. Repasar los contenidos del nivel A2.1 y realizar una evaluación.	